

Gutiengoen eskubideez beste Agiri bat

Zuzendari jaun horri, agur!

Aurreko zenbakian, «Nazio ukatuak Europan» gaia erabili duen horretan, bi agiri eman dituzue **Agiriak** sailean: Bata «Brest-eko Agiria» deritzana, eta bestea «Argel-go Agiria».

Biok garrantzizkoak direla uste dut, munduko Herri kolonizatuei, Nazio ukatuei eta Gutiengo zapalduetara begira. Baina bada beste Agiri garrantzizko bat, 1976. urtekoa hau ere, Gutiengoen eskubideez diharduena eta zuek alde batera utzi duzuen.

JAKINen irakurleek horren berri badakite beharbada; eta ez dakitenentzat ere jakingarria dela uste dut.

Gutiengoen Eskubideen Karta du titulu bezala Agiri honek. «Hizkuntza eta Kultura mehatxatuen Defentsarako Nazioarteko Asoziazioak», Châtillon-en (Valle d'Aosta-n), 1976ko uztailak 23-25 bitartean egindako bere VII. Batzarrean onharturiko Agiria da.

Euskal Herriari bereziki dagozkion bi artikulua aipatu nahi nituzke hemen: 10.a eta 13.a.

Honela dio 10. artikulua: «Gutiengo etnikoko elkarkideek eta hauen erakunde publiko nahiz pri-

batuek, kulturazko edozein harreman ukan ditzakete, hizkuntza berbera duten eta Estatutik kanpo bizi diren populazioekin. Orobat populazio horien agintari ordezkariekin ere edozein harreman ukan dezakete».

Honela dio, berriz, 13. artikulua: «Gutiengo etnikoak, lurraldez bildua eta Estatuaren lur- edo itsas mugaldeen finkaturik dagoen eskubidea du bere buruaz libreki baliatzeko, bai eta Estatutik bereizteko ere. Estatuak, berriz, prozedura demokratiko egokiak eskaini behar dizkio, bere autodeterminazioa bete dezan. Eskubide hau ez da kadukutzen, eta behin eta berriro ejertzita daiteke, dagokion herriak berak eskaturik. Autodeterminazioarekiko lanek nazioarteko kontrolpean joan behar dute, eta nazioarteko magistraturara jotzeko bideak irekita egon behar dute».

Argel-go Agiria Herrien autodeterminazioaren inguruan egina baldin bada, beste Agiri honetan ere, Gutiengo etnikoen autodeterminazioak oinharritzko garrantzia hartzen du.

Besterik gabe, bihotzez agurtzen zaitut.

G. I.